

noaua



**Jon Arroyo izango da
Zubietako alkate berria**

**Etorkizuneko auzoa
eraikitzen hasteko
lehen urratsak eman
dituzte Santuenean**

**Euskara eta aisialdiko
udal diru laguntzak
eskatzeko garaia da**



**“Aldaketa handiak datoz
eta horiek kudeatzeko
tresna egokia izango da
Belmonte auzo elkartea”**

5. or.

KAFE GARAIA

Olatz Altuna Zumeta

NOAUA!ren 25. urteurrenean,
aldizkariko lehen zuzendaria
elkarrizketatu dugu

begi•bistan

begi-bistan.com

INOIZ EZ DA JAITSIERA BAT HAIN DIBERTIGARRIA IZAN

JEITSI ORIA
SENTITU NATURA
BAKARRIK EDO NORBAITEKIN,
ZUK ERABAKI



657 79 46 77

info@begi-bistan.com



ERRESERBATU
HEMEN

EUSKADI
BASQUE COUNTRY



FINKA ADMINISTRATZAILEA

AHOLKULARITZA ZERBITZUA

INMOBILIARIA

ASEGURUAK

943 573 693

Eusko Gudari 35, ORIO



ANORGA TXIBI S.L.
KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak
- beira bikoitza • segurtasun beirak
- dutxa-itxiturak eta irristailuak • ispiluak
- barandak • kristal mota guztiak...

943 37 17 33- 610 45 93 45

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA

HHI-EPA USURBIL HELDUEN ESKOLA

Matrikula epea

ekainaren 22tik 30 arte

(aldez aurretik telefonoz hitzordua eskatu 943 37 64 43- 943 36 66 08)

• HEZKUNTZA OROKORRA

(Oinarrizko kultur formakuntza: Euskara, Ingelera, Gaztelania, Irakurketa, Idazketa.

Kalkuloan hastapena eta hobekuntza. Oinarrizko informatika. Memoria lantzeko joko linguistikoak eta joko matematikoak. Natur Zientziak. Geografia. Historia eta historiarekin erlazionatutako mugimendu artistikoak...)

• DBH-ko titulua (4 hilabeteko ikastaroak)

• GAZTELANIA ATZERRITARRENTZAT

• IRTEERA DIDAKTIKOAK URTEAN ZEHA



ARGIBIDEAK: 943 36 66 08 info@epalasarte.eus

Albisteak iruditan

“Nazkatu gara, gazteok eztanda egin dugu”

Harremantzea debekatu, kultur esparruak ukatu, presiopean eta baliabide mugatuekin ikasi beharra, kontrol soziala kalean, indarkeria poliziala, atxilotetak eta isunak, lan baldintza prekarioagoetan lan egin beharra lana dutenek, langabezia tasa altuena baitute, emantzipatu ezinean, indarkeria matxistaren areagotzea, baita antsietate eta depresio kasuena...

Gazteak jo puntuan izan eta ahotsa kendu zaiela salatu dute lehendik zeuden krisi anitzak areagotu dituen pandemia honetan, egunotako Buruntzaldea mailako “Gazte eztanda” topaketak amaitzeko parte hartzaileek (tartean Usurbilgoek) ekainaren 19an Hernanin egin zuten agerraldian.

“Ezin dugu beste aldera begiratu, larrialdi egoeran jarraitzen dugu gazteok”. Eta horren aurrean isilarazi nahi den belau-naldi oso baten beharrak azaleratu dituzte. “Nazkatu gara, gazteok eztanda egin



Gazteak jo puntuan izan eta ahotsa kendu zaiela salatu zuten Gazte Eztanda topaketan amaieran.

dugu”, adierazi zuten Hernaniko agerraldian. “Baina guk ez dugu etsiko. Sentitzen dugun nazka, haserre, eta amorru hori borroka bihurtuko dugu”, iragarri dute eta “sistema kapitalista heteropatriarkal honen aurka elkartzen jarraituko dugu, zaintza erdigunean jarritz, espazioak sortu eta eragileen arteko sareak eraikitzen.

Orain inoiz baino gehiago, gazteon beharrak erdigunean jarri eta aldarrikatzeko tresna propioak sortzeko garaia da. Gure izenean gehiago hitz egin ez dezaten, gurea den ahotsa berreskuratzeko unea da”. Argi utzi zuten, “ahotsa kentzen badigute, oihu egiteko moduak aurkituko ditugu”.

Laburrean

Eremu berdera igaro da Usurbilgo herria

100.000 biztanleko 14 eguneko koronabirusaren intzidentzia 31,71ra murriztu ostean, eremu horitik berdera igaro zen asteartean Usurbil. Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak ez du Covid-19 kasu berririk atzeman azken aste osoan.

Covid-19a dutenentzat, hondakinen bilteta berezia

Covid-19a duen norbait izanez gero etxean, Atez Ateko bulegora deitzea eskatzen du Udalak (900 776 776), hondakinak aparte biltzeko. “PCR probaren lehenengo emaitzaren zain bazaude, ez atera hondakinik”, eskatzen du Udalak.

Ekainaren 24tik 26ra, “Gaztetxe jardunaldiak”

Aztarrika gazte asanbladak gaztetxearen inguruko jardunaldiak iragarri ditu egunotarako, ekainaren 24tik 26ra, hilabeteotan bideratzen ari diren “Gaztetxearen prozesua, irudikatzetik ikusgai egitera” dinamikaren baitan.

noaia

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkarte@noaia.eus /// www.noaia.eus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatzailea:
Imanol Ubeka.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeka, Aritz Lasarte.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaia.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaia.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Luis Aranalde


“Pertsona orok erlijio askatasunerako eskubidea du; eskubide horren barne dago erlijio edo sinesmena aldatzeko askatasuna eta baita norbere erlijioa edo sinesmena jende aurrean edo pribatuan azaltzeko askatasuna ere”. Horrela dio Giza Eskubideen Azalpen Unibertsalak 18. atalean.

Iaz pausu handi bat eman zuen Eusko Jaurlaritzak musulmanen eta kristauen arteko elkarbizitza sendotzeko. Hain zuzen ere Bizikidetasun Manifestua sinatu zuen Euskadiko 39 meskitetako imanekin. Apaiz gisa dira hauek, erlijio ospakizunak zuzentzen dituzte. Testu horretan esatenenez beren aniztasuna harmonizatzeko gai izan diren herriak dira aurreratuenak.

Aste honetan urrats berri bat emango du gure Legebiltzarrak: Euskadiko aniztasun erlijiosoaren legea sendotu egingo du arau garrantzitsu bat onartuz: erlijio bakoitzak bere otoitz eta kultu gunea edukitzeko eskubidea izango du. Lege proiektu honi esker, euskal gizartearen elkarbizitza eta erlijio askatasunerako eskubideak hobeto babestuak izango dira. Lege berri honek bi alderdi ditu:

1- Udalek lokal erlijiosoak irekitzeko lurzoruak zeintzuk

“Maite dut erlijio oro”



“Aniztasun erlijiosoan heztea izan da nire lana 50 urtez”.

LUIS ARANALDE

“Kalkutako Ama Teresari leitu nion: “nire erlijioaz maitemindurik nago, baina erlijio oro maite dut”. Bitxia esaldia. Garrantzitsua zehaztasun hau: ‘maite’ dut eta ez ‘errespetatu’ bakarrik”

izango diren zehaztea beren hirigintza planetan.

2- Erlijioen arteko Kontseilu bat sortzea.

Gure Elkartea Autonomoko mapa erlijiosoa honela dago gutxi gora-behera: Katolikoak 1.500.000, musulmanak 90.000, ebanjelikoak 30.000, ortodoxoak 19.000 eta 500.000 sinesgabe. Tenplu gehienak aipaturiko erlijioetakoak dira, baina badaude erregistratuta

10 bat budista ere; sinagogarik eta tenplu hinduistarik ez dago.

Duela urte mordo bat Hans Küngek esan zuen Bartzelonan munduak ez zuela bakerik ezagutuko erlijioen artean lortzen ez zen bitartean. Aniztasun erlijiosoan heztea izan da nire lana 50 urtez, bai ikastetxeetan (Frantzian eta Santo Tomas Lizeoan) eta baita parroketan ere eta horretan jarraituko dut osasunak laguntzen didan bitartean. Batez ere saiatu izan naiz erlijioen arteko alde komunak azpimarratzen. Azken batean, bestea errespetatu nahi badut eta maitatu, bere alderdi baikorrak ezagutu behar ditut. Erlijioen errurik handiena izan da bakoitza egia osoaren jabe sentitzea. Hori da fanatismo guztien iturburua. Erlijio oro izan daiteke Jainko bila gabiltzanontzat argi eta

bide. Erlijioak ahalik eta sakonen ezagutzea eta estimatzera gonbidatzen nituen nire ikasleak. Berdin jarraitzen dut orain eliztarrekin eta dotrinako gaztetxoekin.

Kalkutako Ama Teresari leitu nion: “nire erlijioaz maitemindurik nago, baina erlijio oro maite dut”. Bitxia esaldia. Garrantzitsua zehaztasun hau: “maite” dut eta ez “errespetatu” bakarrik. Duela mila urte honela zioen Iban Arabi maisu musulmanak: “garai batean baztertu egiten nituen nire erlijioak ez zirenak. Orain, aldiz, pertsona guztiak ditut maite, maitasunaren erlijioa bizi baitut. Maitasuna da nire kredoa”. Ebanjelioaren moralaren sintesia dira San Mateoren esaldi haiek: “gose nintzen eta jaten eman zenidan; egarri eta edaten eman; arrotz eta etxean hartu ninduzun; biluzik nengoen eta jantzi egin ninduzun; gaixo eta bisitatu; kartzelan eta ikustera etorri”. Antzeko jarrera etikoak eskatzen zituen Budak duela 2.500 urte: “nirvana” (barne bakea, oreka), lortzeko aszesia (autokontrola, nolabait esateko) eta errukia, enpatia eskatzen zituen. Erlijioen arteko elkarriketak bake unibertsala sendotuko luke eta senidetasunezko itxura emango lioke gure munduari.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpiroz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

Komikia



Olatz Altuna Zumeta, NOAUA!ko lehen zuzendaria: “Saltsa ederra sortu zen duela 25 urte”

NOAUA! aldizkariaren lehen zenbakia 1996ko ekainaren 28ko datarekin plazaratu zen. 25. urteurrenean, ‘Kafe garaia’ izeneko atala jarri dugu martxan. Elkarriketa sosegatuen txokoa izango da baina ez dugu nostalgian erori nahi. Iraganekoak berri bai baina, batez ere, gaur egungo kontuez arituko gara gure gonbidatuekin. Lehen kafea Olatz Altuna Zumetarekin hartu dugu. NOAUA!ko lehen zuzendaria izan zen, Soziolinguistika Klusterreko ikerlaria da gaur egun, eta gauza esan-guratsu asko ditu esateko.



Olatz Altuna Zumeta NOAUA! herri aldizkariko lehen zuzendaria izan zen.

NOAUA! Usurbilgo herri aldizkariaren 25. urteurrenaren aitzakian, ‘Kafe garaia’ izeneko atala abiarazi dugu. Atzera begira jarriko gara baina gaur egungo kontuez ere jardun nahiko genuke zurekin. Dena den, ezer baino lehen, non zeunden duela 25 urte? Zertan ari zinen?

Olatz Altuna Zumeta: Urte batzuk herritik kanpo pasa eta gero, orduantxe itzuli nintzen etxera. Bilbon egin nituen ikasketak baina unibertsitateko azken ikasturtea Italian

OLATZ ALTUNA

“Garai horretako herritar kazetari gazteekin batera sekulako taldea osatu genuen; Gari Udabe, Idoia Torregarai, Ainhoa Azpirotz eta Josu Aranberrirekin”

egin nuen. Zientzia politikoak bukatu eta gero, orduantxe erabaki nuen herrira itzuli eta

soziologiarekin jarraitzea. Lantxo batzuk egiten hasia nintzen. Garai horretan Euskal Herrian Euskarazek eta EKB-k egin zuten ikerketa batean hartu nuen parte, “Politikoak eta euskara” zuen izena. Esan dudan bezala, Usurbilen nintzen bueltan eta nonbait parte hartzeko gogoz nintzen; herrian ekarpen bat egiteko gogoz.

NOAUA!ren egitasmoan parte hartzeko gonbitea luzatu zidaten orduantxe. Oso gogoan dut unea. Plazan ginen, NOAUA!

sortzera zihoala eta zuzendari izateko proposamena egin zidaten. Baiezkoa eman nuen eta horrela hasi ginen, Correosen eraikin zaharrean. Zendoia ondoko hartan. Garai horretako kazetari gazteekin batera sekulako taldea osatu genuen: Gari Udabe, Idoia Torregarai, Ainhoa Azpirotz eta Josu Aranberrirekin. Jende gehiago ere bazebilen NOAUA!ren inguruan, Iñigo Azpiroz, Jakoba Errekondo,... Saltsa ederra sortu zen herrian.

“Gure etxean distortsio handiena sortzen duen elementua telefono mugikorra da”

NOAUA! 25 urteotan aldaketa asko eman dira. Arlo sozialean, telefono mugikorrek plazako petrileko berriketaldia ordezkatu du. Kalea abandonatu eta pantaila batean murgildu garela dirudi. Agian ez da hainbesterako izango. Zuk bi alaba gazte dituzu, ze inpresio duzu?

Olatz Altuna Zumeta: Etxean askotan aipatzen dugu gai hau. Gure artean distortsio handie-

na sortzen duen elementua dela esango nuke. Arazo gehien sortzen dituen gaia haxe da.

Belaunaldi berrietan, mugikorrek harreman-mota aldatzea ekarri du. Alabekin nagoenean, eragozpen gisa ikusten dut telefonoa. Ezin dugu elkarriketa patxadatsu bat eduki, lasai. Etengabe ikusten ditut oso-oso pendiente gailuarekin, noiz joko duen zain. Eta zerbait jaso ezker, berehala erantzun behar

hori... Nik ez dut batere ondo bizi kontu hau. Eta kalean ere, mugikorraren presentzia nabarmena da. Beste belaunaldi bat da eta hori ere kudeatzen asmaturiko dute. Baina pena ematen dit, etengabe konektatuta egon behar izateak.

Bere alde ona ere badu, ezta? Zaharrena adibidez, kanpoan ibili da, harremanak ditu atzerriko jendearekin eta horrelakoetan harremantzeko modu

horrek gauzak asko errazten ditu. Baina gero, bere lagunarte gertukoekin, inpresioa daukat plazan ere etengabe konektatuta segitzen dutela, eta pena ematen dit. Niretzat hain inportantea da elkarriketa patxadatsu bat edukitzea; batek hitz egiten duen bitartean, bestea entzuten ari dela ikustea, ez duela belarria beste nonbait... Hori dena eragozten duela iruditzen zait.

“Azken 15 urteotan euskararen erabilera zertxobait igo da Usurbilgo kaxkoan”

NOAUA! 2017ko maiatzean, goiburu hau zuen artikulua plazaratu genuen: “Euskararen kaleko erabilera %61,9tik %54ra jaitsi da Usurbilen”. Harridura eragin zuen albisteak. Dena den, datuak xehatzen hasi eta hara non: Kaxkoan eta Aginagan igo egin zen kale erabilera; gazteen artean ere erabilerak goruntz egin zuen. Titularretara mugatzen gara maiz, baina letra xehean erreparatzea ere inportantea izango da, ezta?

Olatz Altuna Zumeta: Ikerketa bat titular batean laburbiltzea oso zaila da. Gure artean komentatu izan dugu, guk geuk aurreratu beharko genukeela titularra. Ikerketan gu gabiltza eta gauzak erraztuko lituzte, bestela ez baita ondo jasotzen mamia, ezta?

Usurbilen 5 zonalde neuritzen dira. Kaxkoaz gain, Aginaga, Santuenea, Zubietan eta Olarriondo. Datu orokorrak hartuta, hala da: erabilerak behera egin du. Baina aipatzen duzun bezala, kaxkoan igo egin da, eta bertan erregistratzen dira elkarriketa gehien. Horien artean izango dira herriko beste gunetatik Usurbilgo erdigunera gertatzen diren pertsonenak ere.

Euskararen erabilera beraz, bere horretan dago. Azken 15



Olatz Altuna Zumeta Soziolinguistika Klusterreko ikerlaria da. Besteak beste, Euskal Herriko hizkuntzen erabileraren inguruko kale-neurketak egiten dituzte. Olatzek azken bost edizioak zuzendu ditu.

ERABILERAREN JAITSIERA ZUBIETAN

“Kale neurketak asteazkenetan, larunbatetan eta igande goizetan egiten dira. Eta asteburuetan, zubietar gutxi topatuko duzu Zubietan paseatzen”

urteetan bi puntu igo da eta azken bost urteetan %70 horretan dago erabilera. Nola azaldu azken neurketan datu orokorra %54ra jaitea? Besteak beste, Olarriondon eta Zu-

bietan eman zen jaitsiera. Nik Zubietako errealitatea ondo ezagutzen dut eta Zubietan 2001etik 2016ra sekulako jaitsiera eman zen. %60 izatetik %38a. Badakigu Zubietan hala gertatu dela. Dena den, esan behar da neurketak asteazkenetan, larunbatetan eta igande goizetan egiten direla. Eta asteburuetan, zubietar gutxi topatuko duzu Zubietan paseatzen. Lasarte-Oriako ibilbide hori berriro zutenetik, jende pila bat dator Zubietara. Beraz, datuak irakurtzerakoan, horrelako xehetasunak ere kontuan hartu

behar dira.

Beraz, ze titular emango zenioke egungo errealitateari?

Kaxkoan euskararen erabilerak bere horretan jarraitzen duela, eta zertxobait igo dela 15 urteko ibilbidean. Eta auzoka, bakoitzak bere errealitatea duela.

Azken kale-neurketa 2016an egin zen. Horren emaitzak izan ditugu hizpide. Bost urtez behin egiten direnez, neurketa berriak aurtan egin beharko dituzue, ezta?

Horretan ari gara burubelarri.

“Euskararen sustapenean, NOAUA! gakoa izan da”

NOAUA! Euskararen normalizazioan eragiteko sortu zen NOAUA! Kultur Elkartea. He-dabide gisa, paperean eta sarean ari gara. Elkarrekin bezala, kultura arloan eta aisialdian. Bistan da lan asko dagoela egiteko oraindik. 25 urteko ikuspegia duzun aldetik, zer du faltan NOAUA!k? Eta zer

du soberan?

Olatz Altuna Zumeta: Nire ustez NOAUA!k oso bide interesgarria egin du eta oso lan ona egiten ari zarete. Nik hori azpimarratuko nuke. Ikusten da gainera, paperaz haratago, gaur egungo bitartekoetara hurbildu zarete. Ausart jokatzeko duzue horretan eta hori ere inportantea

da. ‘Kafe garaia’ ikusentzunezko atal berri hau, sare sozialak, web orria eta abar...

Zentzu horretan, aldizkaria eta elkartea bera euskararen sustapenerako gakoak izan dira. Baina badago beste elementu bat niretzat oso erakargarria dena. Aldizkaria eta aldizkariaren inguruko mugi-

mendua herria egiteko ere oso inportantea da, herria trinkotzeko. Herrian gertatzen dena elkar ezagutzeko, denek elkarren berri izateko. Herria egiteko, azken batean. Elementu hori ere oso inportantea da. Duela 25 urte, horrek erakarri ninduen; herria egin eta egin euskaraz.

“Gazteek uste dute ez dela eurekin kontatzen”

NOAUA! Gazteak euskararen eszenatokian: erabileraren auzia txostena plazaratu zenu-
ten iaz. “Euskalgintza urrun
ikusten dute gazteek, eta ez
dira bertako kide sentitzen”.
Hori ondorioztatu daiteke txos-
ten horretan. “Euskalgintzak,
era berean, ez du asmatu gaz-
teengana hurbiltzen”. Distan-
tzia hori gainditzeko formula
magikorik ez da egongo, bai-
na ba al da eredu argigarri-
rik inon?

Olatz Altuna Zumeta: Ikerketa
hori lau udalerritan egin da (Zu-
maia, Gernika, Pasai Donibane
eta Amorebieta-Etxano) eta lau-
retan gazte gehienek antzekoa
esan digute: “gure bizkar gai-
nean daukagu euskararen erabi-
lera aurrera ez egitearen zama.
Eta guri ez digute galdetu”.

Presio hori sumatzen dute.
Ikerketak hori azalerazi du eta



Elkarriketa hau eta 'Kafe garaia' ataleko gainontzeko guztiak ere gure web orrialdean ipiniko ditugu ikusgai, noaua.eus/kafegaraia helbidean.

OLATZ ALTUNA

**“Euskalgintza urruti
sentitzen dute gazteek.
Era berean, gehientsuenek
oso ondo identifikatzen
dituzte euskalgintzako
herriko erreferenteak”**

zer pentsatua eman dit. Eure-
kin ez dela kontatzen. Beraz,
dena delako eredu horrek hori

hartu beharko luke kontuan.

Proiektuak egon badaude.
Hementxe bertan, Kuadrillate-
gi egitasmoak urteak darama-
tza Lasarte-Orian. Eta egitasmo
hori kuadrillekin batera landu
da. Aurrera begira, uste dut
hori dela kontuan hartu behar-
ko den gakoa.

**Helduok gazteei zer egin be-
har duten agindu orde, erre-**

**mintak euren esku utzi behar-
ko lirake, sortu beharrekoak
sortu ditzaten?**

Ikerketa egin zenean, Euska-
raldia pil-pilean zen. Eta eus-
kalgintza, orohar, urruti sen-
titzen zuten. Era berean, egia
da gehientsuenek oso ondo
identifikatzen dituztela euskal-
gintzako herriko erreferenteak.
Baina euskalgintza, mugimen-
du gisa, urruti gelditzen zaie.

Bada beste elementu kurioso
bat nire ustez. Euskaraldiare-
kin oso sensibleak dira, beraiek
esan ohi duten *postureo*arekin.
Askok aipatzen zuten, “hor
postureo handia dago”. Kri-
tikoak dira baina aldi berean
urruti sentitzen dute euskal-
gintza. Horrek adierazi de-
zake badagoela zerbait egiteko
gogo, baldin eta asmatzen
badugu eta kontutan hartzen
baditugu, ezta? Ba horrekin
geldituko gara.

“Umeak identifikatu behar du euskara ez dela haurren hizkuntza bakarrik”

NOAUA! Azken kale-neur-
ketan, haurren presentziak
helduen arteko elkarriket-
en hizkuntzan eragiten ote
duen aztertu zen. Haurrik ez
badago, %65,7tik %43,1era
murrizten da euskararen
erabilera. Ez da Usurbilen
bakarrik gertatuko, konstan-
te bat izango da, baina zer
pentsatua ematen du ezta?

Olatz Altuna Zumeta: Konstan-
te bat da, bai. Euskal Herriko
lurralde guztietan ematen da.

Gipuzkoan, Iparraldean, Ara-
ban... Lurralde guztietan ema-
ten da, eta zonalde guztietan.
Zonalde erdaldunetan tartea
txikiagoa da, baina haurrak
elkarriketetan daudenean,
erabilerak gora egiten du. Ho-
rrek zer esan nahi du? Batetik,
positiboa da helduek (gu-
rasoek nahiz zaintzaile-hel-
duek) badutela hizkuntza ge-
roratzeko, biziberritzeko eta
sustatzeko gogo bat. Azken
urteotan D ereduak ezagutu

duen zabalkundearekin ere
ikusi da hori.

Bestetik, datu horrek
erakusten du helduen artean,
beraien artean ari direnean,
badutela gaztelaniaz hitz egi-
teko joera. Eta horren aurrean,
haurrak ikusten duena da eus-
kara haurren hizkuntza dela.
Gai hau askotan aipatu da, eta
askotan aipatu denez, guk no-
labait kuantifikatu nahi izan
dugu. Kale-neurketak hori egi-
ten du azken batean, erabilera

kuantifikatu. Datuak eskue-
tan, ikusi da fenomeno hau
zonalde guztietan gertatzen
dela. Eta inportantea da joe-
ra horri jarraipena egitea.
Eta bide batez, garrantzi-
tsua da nabarmentzea umea
eskolara eramanda ez dela
nahikoa. Umeak identifika-
tu behar du euskara ez dela
haurren hizkuntza bakarrik,
helduena ere badela. Eta argi
dago heldua umearentzat
eredu dela, ispilu dela.



NOAUA! herri aldizkariaren ibilbidea 1996ko ekainaren 28an hasi zen

1996 urteko ekainean kaleratu zen ofizialki lehen NOAUA!. Orduetik hona, erredakzioaren funtzionamendua, langileak eta aldizkariaren maiztasuna bera goitik behera aldatu dira. Ireki berri dugun sail honetan, atzera begiratu egingo dugu hilabetero, duela 25 urte kaleratutako NOAUA! bakoitzari keinu txiki bat egin asmoz. Oraingo honetan, ekaineko lehen ale hari zegokiona izango da hizpide.

Zuri-beltzean ateratako 24 orriko aldizkaria izan zen lehenengoa, iristear zeuden festei eskainia batik bat. Pasatu berri zeuden San Juanei keinu

egin eta Santixabelei zuzendutako portadak, urte hartako hildakoei, ezkontzei eta jaio-tzei bide ematen zien, bai eta aurkibideari eta telefono zenbaki nagusiei ere.

Andoni Sagarnaren agurra

Lehen ale hartan, agurra egin zuen aldizkariak ezagututako lehen lehendakariak: Andoni Sagarnak, hain zuzen ere. “Badakigu ez dela ahuntzaren gauerdiko eztula, baina badakigu halaber Usurbilen badela gatza eta piperra horretarako eta gehiagorako ere. Inolako zalantzarik gabe lortuko dugu. Eutsi goiari!”, horiek izan ziren agurrean idatzita utzi zituen hitz batzuk.

Baita lortu ere. Beste 25 urte bete ditzala!

Santixelak atzerrian

Santixela jaien inguruan osatu ziren orrialde gehienak. Atzerrian bizi ziren usurbildarrek Santixela buruzko kontaketa egin zituzten Brasildik, Paristik, Puerto Ricotik, Bartzelonatik, Alcalá de Henares espetxetik eta Herbehereetatik.

Ringoren balentriak

Kirolen tarte ondoren, “Ringo”k munduko onenen artean sartzea lortu baitzuen, 15. postuan.

Lehiaketak atalarekin amaitu zuten NOAUA! hura, eta lehiaketa berarekin itxiko da



Mende laurden bete du aldizkariak. Azal hau zuen lehen zenbakiak.

hilabete honetako atal hau ere. Zein izan zen 1996ko Santixela maskota?

Duela 25 urte

NOAUA! 1. zenbakia 1996ko ekainaren 28an

“Earki natxien esaten nion neure buruari asto gaixoa kargatuta, eta ni bere gainean”

Lehen NOAUA! hartan Arantxa Goenaga Olarriko esnezale-ohia elkarriketatu zuten. 25 urte eta gero, hementxe ditzue Arantxak esandakoak:

NOAUA! Noiz hasi zinen esnea banatzen?

Arantxa Goenaga: Bederatzi urterekin hasi, eta orain dela hiru urtera arte.

Zer ordutan jaikitzen zinen?

Goizeko seietan, esneak “le-txeroari” eman, erosketak egin, etxera joan, lanak egin, eta bederatzietarako kalezar-ko mojetara.

Nola etortzen zinen baserri-tik?

Hasieran astoarekin, gero behorra, ondoren traktorea, gero furgoneta eta orain kotxez.

Xelebrekeriaren bat?

Neguan, ilun-ilun zegoenean, astoaren gainean jartzen nintzen farola eta guzti. “Earki natxien” esaten nion neure buruari asto gaixoa kargatuta, eta ni bere gainean.

Zein animalia esnea saltzen zenuen?

Aurren-aurrea behiarena. Eta gero, hogeita bost urte inguru nituenean, ardiarena.

Nork jezten zituen behiak eta ardiak?

Normalean aita eta anaiak, baina anaia soldaduskan egon zenean, nik laguntzen nion aitari.

Orain etsitzen al duzu esnerik saldu gabe?

Justu-justu. Askotan gogoratzen naiz, eta pena handia ematen dit.

Zure bizitza esne banaketari lotuta egon da, orduan?

Bai, egun guztia esnearekin pasatzen nuen. Gora eta behera esnearekin!

Baina gustora.

Bai, lan polita da: jendearekin hitz egin, herriko kontuen berri izan...

Piropoak ere botako zizkizuten...

Beno, bai. “La lechera más guapa de Usurbil”, “¡Qué guapa estás!”, eta horrelakoak.

Esnez egindako zein postre duzu gogokoen?

Esnez egindako edozein, baina gaila eta horrelakorik ez eman niri.

Esnea, baserrikoa ala gaingabetua?

Baserrikoa, beste hori hartzea



Arantxa Goenaga.

baino hobea da kanilako ura.

Bizitzeko, baserria ala kalea?

Baserria, lasaiagoa da.

Parrandazalea al zara?

Ni “juerguista número uno” izan naiz. Inguruko festa guztietan izaten nintzen.

Eta astelehenik bai hurrengo goizean?

Ez, ez, jaikitzeke ez dut inoiz arazorik izan, eta esnatzeke esnagailu beharrik ere ez.

Usurbil Kultur Biran, ohiko Santixabelen egunetan

Kalezarko San Juanen ostean, Kultur Bira Usurbila itzuliko da, ohiko moduan ospatu ezingo diren Santixabelen egunetarako proposamen interesgarriokin.

Uztailak 1, osteguna

■ 17:00 Kolore festa Oiardo Kiroldegan. Zehaztasunak: “Marrazketa saioa. Norberak bere margoak ekarri beharko ditu, baita karpeta ere, euskarri bezala erabiltzeko. Bukaera, opariak zozketatuko dira parte hartzaile guztien artean”.

Edukiera: 200 lagun.

Sarrera: herritar bakoitzak lau sarrera eskuratu ahalko ditu gehienez.

■ 22:30 Neona eta Amak taldeen kontzertuak Udarregi Ikastolako karpa gunean.

Edukiera: 200 lagun.

Sarrera: herritar bakoitzak bi sarrera eskuratu ahalko ditu gehienez.

Uztailak 2, ostirala

■ 18:00 “Aupa Strings” taldearen emanaldia Oiardon.

Zehaztasunak: “Musika klasikoa, heavy metala edota bluesa era naturalean fusionatzen ditu familiako gazteei (6-12) zuzenduriko String Jukebox ikuskizun parte-hartzaileak”.

Edukiera: 200 lagun.

Sarrera: herritar bakoitzaren-tzat gehienez 4 sarrera.

■ 19:00 Bertso-saioa udaletxe aurreko Joxe Martin Sagardia plazan. Bertsolariak: Miren Artetxe, Agin Laburu, Aitor Mendiluze eta Onintza Enbeita



Neona taldea Udarregi ikastolako karpa gunean arituko da uztailaren 1ean, Amak taldearekin batera.

BERTSO-SAIOA

Miren Artetxe, Agin Laburu, Aitor Mendiluze eta Onintza Enbeita arituko dira Santixabel egunean

ta. Gai-jartzailea: Maite Berriozabal.

Edukiera: 135 lagun.

Sarrerak: herritar bakoitzaren-tzat gehienez 2 sarrera.

■ 22:30 Bertso-gaua Udarregi Ikastolako karpagunean. Zehaztasunak: “Bueltan da, urtebeteko hutsunearen ondoren, Usurbilen hain kuttuna dugun ekitaldia: Bertso Gaua”.

Edukiera: 200 lagun.

Sarrerak: herritar bakoitzaren-tzat gehienez 2 sarrera.

Uztailak 3, larunbata

■ 10:00 Iratxoaren oparien bila

herrian barrena. Zehaztasunak: “Gauetz eta ezkutuan ibili ohi dira iratxoak magia eta jolas bereziak sortzen, egun argitan herritarrei eskaintzeko. Mezu bat iritsi da duela gutxi usurbildarrontzako zerbait prestatua dutela esanez. Ez dugu askorik ulertu eta zuen laguntza behar dugu argitzeko, lagunduko? Plataformatik eta taldeka izen emateko aukera egongo da, 10 laguneko taldeak gehienez”.

Edukiera: 200 lagun.

Sarrerak: herritar bakoitzaren-tzat gehienez 4 sarrera.

■ 17:00 Gazte olinpiadak Mikel Laboa plazan.

Edukiera: 135 lagun.

Sarrerak: herritar bakoitzaren-tzat gehienez 3 sarrera.

■ 22:30 Mihise eta Rotten XIII taldeen kontzertuak Udarregi Ikastolako karpa gunean.

Edukiera: 200 lagun.

Sarrerak: herritar bakoitzaren-

tzat gehienez 2 sarrera.

Uztailak 4, igandea

■ 18:00 Orbeldi Dantzan III (helduen emanaldia) eta Puro Relajo Artzabalgo frontoian.

Edukiera: 100 lagun.

Sarrerak: herritar bakoitzaren-tzat gehienez 2 sarrera.

■ 22:30 Bulegoren kontzertua Udarregi Ikastolako gunean.

Edukiera: 200 lagun.

Sarrerak: herritar bakoitzaren-tzat gehienez 2 sarrera.

Izen ematea:

Ekainaren 28ra arte usurbilkultura.eus atarian.

Antolatzaileak:

Kalezar, Aginaga, San Esteban, Atxegalde, Santuenea eta Usurbilgo jai batzordeak; Xauxar Txosna Batzordea; Ziortza K.E.; Hitz-Aho guraso elkarte; Usurbilgo Udala; NOAUA!.

Laboaren Uztaila bueltan da

Uztailako ostegun gauak euskal musikariak izango dira Usurbilen, seigarren edizioarekin bueltan datorkigun Laboaren Uztaila zikloari

esker. Segidan dituzue kontzertuen hitzorduak, izena aurrez bideratu ahalko da usurbilkultura.eus plataforman. Xehetasun gehiago datorren

astekarrian. Sortzaileok dira datorren hilabeteko ostegunetan, gaueko 22:00etan Mikel Laboa plazan izango ditugun gonbidatuak:

■ Uztailak 8: Olor.

■ Uztailak 15: Ibon RG// Enrique Hurtado.

■ Uztailak 22: Aire ahizpak.

■ Uztailak 29: Garazi Navas.

Jon Arroyo izango da Zubietako alkate berria

Legealdiak lau urtekoak izaten dira oro har. Erakunde guztietan, baina dituen berezitasunak tarteko, bitan zatitua egoten da Zubietako Herri Batzarrean. Lehen bi urteetan Usurbil aldeko alkatea izaten dute zubietarrek. Haritz Arrizabalaga izan da 2019ko maiatzaren 26ko hauteskundeetan ondorengo aipatu tokiko biltzar honetako burua; 2023ra arte, duela bi urteko bozketa egunean herriarren babes gehien jaso zuen Donostialdeko hautagai Jon Arroyo izango da, Arrizabalaga ordezkatzeko duena.

2019-23 legealdia erdibidera heldu den honetan egin dute lekuko aldaketa, iragan ekainaren 15ean, Zubietako Kaxkapen ospatu zuten kargu hartze ekitaldian. Herri Batzarreko kideak, eta Usurbil zein Donostiako udaleko alkateak bildu zituen hitzorduak.

“Hurrengo urteak oparoagoak izatea espero dugu”

Pazientzia hartuta, “saiautuko gara herriaren gaiak ahal den heinean bideratzen”, adierazi zuen Arroyok, zumia hartu



Jon Arroyok Haritz Arrizabalagaren lekukoa jaso du.

HARITZ ARRIZABALAGA

“Bi urteotan oso gustura aritu naiz Jon Arroyorekin lanean eta seguru naiz lan ona egingo duela”

berritan eta taldea goraipatuta. Ondoan zuen aurreko alkatearen eskutik jaso zuen lekuko aldaketaren sinboloa. Haritz Arrizabalagak hain zuzen, azken bi urteotako balantzea egin nahi izan zuen aurretik. “Urte arraroak bizitzea tokatu zaizkigu, ez dira joan guk nahi genuen adina arin”. 2023ra

arteko hauteskundeak bitartean halere, ilusioa galdu gabe zioenez, “hurrengo bi urteok aurrekoak baino oparoagoak izatea espero dugu. Aldaketa onerako izan dadila”.

Lekukoa helarazi zion alkate berriari adierazi zionez, “seguru nago oso ondo egingo duela. Bi urteotan oso gustura aritu naiz berarekin lanean eta seguru naiz lan ona egingo duela. Gu ere hor egongo gara”.

Mendi bideen garbiketa eta udal ekipamendu berriaren lanketa

Azken bi urteotan, herri giroa

sustatu eta herri mailan egin-dako bileratik jasotako ekarpenak bideratu nahian aritu direla aipatu zuen Arrizabalagak. Lagungarritzat jo zuen, Usurbilgo Hiria Antolatze Plan Orokorrari lotuta, Zubietako etorkizuna marrazteko iazko udazkenean egindako parte hartze prozesua. Zubietarren egoitza nagusia, Kaxkape ere egokitzen hasiak direla berri eman zuen.

Gune honen erabilera sustatzen segi asmo dutela nabarmendu zuen kargua hartu zuen alkate berriak. “Gure asmoa, herriarrek hemen bere txokoa izatea da”, Arroyoren esanetan. Auzolanean eraiki eta hobetu nahi dute etorkizuneko Zubietan. Hilabeteotarako bi hitzordutan parte hartzeko gonbita luzatu zien zubietarrei: mendi bidea garbitu eta irailetik aurrera, lehendik egindako parte hartze prozesuan ateratako behar bati heldu asmo diote; ekipamendu publiko bat izateari alegia. Parte hartze prozesua iragarri dute udazkenetik aurrera. Gonbita helaraziko diete bizilagunei. “Animo herriari, aupa Zubietan!”, adierazi zien Arroyok herrikideei.

Donostiako alkatea: “Legealdiaren beste erdia lehenengoa baino pixka bat txukunagoa izango dela espero dezagun”

Erraza ez den pausoa eman eta bere gain hartutako arduragatik esker hitzak helarazi zizkion bi urteotan Zubietako alkate izan den Haritz Arrizabalagari, Donostiakoak, Kaxkapeko ekitaldian izan zen Eneko Goiak. “Zorte on”, adierazi zion kargua hartu berri zuen Jon Arroyori. “Legealdiaren beste erdia lehenengoa baino pixka bat txukunagoa izango dela espero dezagun”, adierazi zuen.

Etorkizuneko Zubietaren eraikuntzan azken urteotan izandako bi mugarri nabarmendu zituen Gipuzkoako hiriburuko alkateak. Batetik, aurreko legealditik duen “oroitzapen positiboenetako” bat; Herri Batzarrearekin eta Usurbilgo Udalarekin batera hainbat zerbitzu egokiago kudeatu eta koordinatzea ahalbidetu zuen hitzarmena. Desadostasun eta zalantzak “gainditzeko borondatea” nabarmendu

zuen. “Uste dut zintzotasun handiz jokatu genuela guztiok. Mahai gainean jarri genituen gure ikuspegiak eta batzuetan mugak, eta horrek adostasun batera heltzen lagundu zigula”.

Aurrera begirako bidea zein den erakutsi duela zioen Goiak, esperientzia hau gogora ekarrita; hitz egin eta adostasunera heltzen saiatzeko gaitasunarena alegia. Nabarmendu zuen bigarren mugarria, hiru erakundeek azken urtebetean

bideratu dutena izan da; Usurbilgo HAPO-aren harira Zubietan garaturiko parte hartze prozesua. Usurbilgo Udalak bertan eskuhartzeko eginiko gonbita eskertu eta bueltan, hiriburuan abiatzekoak diren antzeko prozesuan ere eragile aktibo izatera deitu zion Goiak Usurbilgo Udalarari. Donostiako plan orokor horren diseinuan abiaraziko duten “prozesu horretan egin dezagun bidea elkarrekin”.

Usurbilgo alkatea: “Aurrerantzean ere elkarlanean aritzeko aukera izango dugu”

Herri Batzarrak lankidetzarako erakutsitako prestutasunagatik eskerak helarazi eta etorkizuneko Zubietaren elkarrekin eraikitzeke HAPO-ari lotutako parte hartze prozesuan lankidetzan jorraturiko bidea goraipatu zuen Agurtzane Solaberrietak.

Azken bi urteotako alkateari eta kargu hartu berri duenari zorionak eta eskerrak helarazi nahi izan zizkien Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrietak, herriaren alde lanean aritzeko adierazitako eskuzabaltasunagatik eta Udalarekin lankidetzan aritzeko prestutasunagatik. “Ez dut dudarik aurrerantzean ere modu berean aritzeko aukera izango dugula”.

Elkarlan horren adibide positibotzat jo zuen Usurbilgo



“Garaiotan inoiz baino gehiago dagokigu erakundeoi herritarrei ziurtasunak ematea”, adierazi zuen Agurtzane Solaberrietak.

AGURTZANE SOLABERRIETA

Donostiako Udalaren parte hartzea nabarmendu zuen Usurbilgo alkateak. “Elkarlana nabarmendu nahi dut”

alkateak Hiri Antolamendurako Plan Orokorren harira

Zubietan iazko udazkenean bideraturiko parte hartze prozesua.

Donostiako Udalaren parte hartzea ere nabarmendu zuen Usurbilgo alkateak. Tokiko bi erakundeok “hainbat proiektu sozioekonomikoetan eta gizarte ereduetan” izan ditzaketan desberdintasunen gainetik,

“elkarlana nabarmendu nahi dut”. Zubietarrei hitza eman eta prozesuko bidea elkarrekin joratzeko izan duten adostasuna. Ezohikoa, Solaberrietak zioenez, “ezegonkortasuna nagusi den garai hauetan”. Azpimarratu zuenez ordea, “garaiotan inoiz baino gehiago dagokigu erakundeoi herritarrei ziurtasunak ematea, eta ziurtasun horiek adostasunaren bidetik eraikiak badira askoz hobe”.

Emaizten aurkezpena

HAPO-aren bueltan “ekarpen asko” egin zituzten zubietarrek. Txosten batean bilduak daude. Uda ostean, “gatoz Zubietara txosten horretan bildutako emaitzak eta ondorio nagusiak aurkeztera”, iragarri zuen Usurbilgo alkateak.

Josue
Igeltseritza

606 37 21 05

Ondo pasa
San Joanetan!!!

Fatxaden estaldurak

Estalkien berriztatzeak

Barruko berrikuntzak

Gremioen koordinaketa

Igeltseritza orokorra

Atallu pol. atallu, 28 USURBIL

josueigeltseritza@euskalnet.net

Deshazkundera, datorren Jakin Jardunaldiko hitz gakoa

Krisi ekologiko, klimatiko eta sozialaren erdian: desazkundera biderik bada? Galdera honen bueltan hausnatuko dute Usurbilgo Udalak, UEU-k eta Jakin-ek uztailaren 15 eta 16rako Usurbilen antolatu duten jardunaldian. Deshazkunderaz ariko dira honenbestez, azken urteotan garapen jasagarriari kontrajarri zaion kontzeptuaz, jardunaldiok aurkezteko iragan astean antolatzaileek Donostian egin zuten agerraldiaren baitan, Jakineko zuzendari Lorea Agirrek zioen moduan.

“Badira urte batzuk aipatzen dela hazkundera eta jasagarria ezin direla esaldi berean kokatu, elkarren kontra doazelako. Beharbada deshazkundera hasi behar dugu? Zer esan nahi du?”, hortxe Usurbilgo jardunaldietan hausnartzeko gaia. 15 hizlari ariko dira galdera hauei erantzun nahian, Udarrigi Ikastolan izango diren solasaldietan. “Hitzaldi oso interesgarriak”, Agirreren esanetan. “Ikusi nahi ez genuena ikusarazi digun” pandemiaren “luzaketak”, besteak beste, “eragile eta pairatzaile” bilakatu gaituen krisi ekologikoa, eta krisialdi honekin gurutzatzen diren gainerakoak; soziala, ekonomikoa, sistemikoa... ahotan hartuko dute. Aspaldi buruan zuten gai hauxe ekarri nahi zuten, nora eta Usurbila, “herriaren beraren nortasu-



Deshazkunderaz ariko dira Usurbilen egingo diren jardunaldietan, azken urteotan garapen jasagarriari kontrajarri zaion kontzeptuaz.

LOREA AGIRRE, JAKIN

“Jakintza partekatu, eztabaidak zabaltu eta galderak zintzotasunez planteatzeko aukera egongo da”

nean eta bere praktiketan gai zentrala da”. Herri pragmatiko gisa definitu zuen Jakineko ordezkariak Usurbil, “borroka, eraldaketa eta alternatibak sortze horretan”.

“Jakintza partekatu, eztabaidak zabaltu, galderak zintzotasunez” planteatuko dituen jardunaldiotan parte hartzeko gonbita luzatu zuten, norbanako nahiz kolektibo edo herri gisa, “zer egin dezakegun” ikustera, Agirreren esanetan. Jardunaldiok emandakoa Jakinek udazkenean kaleratuko duen zenbaki monografiko batean jasoko du.

“Zuen zain gaituzue”

Iaz pandemiagatik egun bakarrera murriztu ostean, aurreko edizioen antzera aurtan bi jardunaldi egun izango ditu UEU-ren 49. udako ikastaroen baitako Jakin Jardunaldiak. “Ilusioz heldu diogu aurtengo ekitaldiari ere”, zioen aurkezpen berean Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrietak, hiru erakundeok sinatua duten lankidetzaren hitzarmena goraipatu eta lankideei esker ona helaraztearekin batera, “erosoa eta erraza delako haiekin lanean aritzea”.

Berriz ere, Usurbil “hitza- ren, gogoetaren eta solasaldia pausatuen parada” izango da alkatearen esanetan. “Gustu baduzue Usurbilen ikusiko dugu elkar, zuen zain gaituzue”, luzatu zuen gonbita alkateak.

Ekarpen zuzena egingo

dio Udalak hitzordu honi, ez bakarrik antolaketari dagokionez, jardunaldioi plaza eskainita, hitza ere hartuko baitu saioetako batean. Aurkezpena hain zuzen “baliatu nahi nuke eskerrak emateko, jardunaldiotan Usurbilgo hiri hondakinak eredutzat hartu eta plaza hori eskaintzeagatik atez atekotik Usurbil 0.0 eredura egiten ari garen bidearen berri emateko”.

Ura, hondakinak, mugikortasuna, Usurbilgo udal politika publikoak eredu jasagarri, irisgarri eta biziagorantz eta herritar nahiz eragileekin elkarlanean bideratuak daudela gaineratu zuen Solaberrietak, “begirada morez”, ikuspegi feminista txertatzea ezinbestekotzat jotzen baitu. Oraindik ere nagusi izan eta “historikoki maskulintzat jo izan diren balioek” begi bistako eragina dutela adierazi zuen, “klimate krisia”. Adibide gisa jarri zuen, etxe ondoan izan eta “Gipuzkoan CO2 gehien isuriko duen enpresa, errauste planta. Gure ustez ez dago justizia klimatiko posible-rik Gipuzkoan” halako azpiegitura bat martxan izanda.

“Mundua krisian dugu”, ekonomia, osasun, ekologia, zaintza... “zibilizazio krisian”. Pandemiaren ordezkari aditu askok aipaturiko sindemiarren “talaia- tiki begiratu nahi diogu munduari” jardunaldiotan, Agurtzane Solaberrieta alkateak zioen.

Lankidetzaren eredugarria

Aurrez aurre izango dira saio guztiak, horren aldeko apustua egiten duela nabarmendu zuen euskal unibertsitatearen eraikitzen diharduen UEUk. “Oso garrantzitsua

baita unibertsitate komunitate dinamiko bat sortzeko”. Ideiak, jakintza elkartruka- tuz.

UEU-ren sare sozialetako traola ekarri zuen gogora bere

zuzendari Kepa Sarasolak; “elkarrekin. Batak bestearekin elkarrekin, gizarte honen arazoaren analisia egiteko, konponbideak bilatzeko”. Jardunaldion antolaketan urte- o

tan sustatu den lankidetzaren goraipatu zuen Sarasolak. “Apustu oso ona izan zen” eta lankidetzaren eredugarria zioenez, “beste udal batzuei atea ireki” baitio.

Matrikulazio epea zabalik da

Krisi ekologiko, klimatiko eta sozialaren **erdian:** desazkundea beste biderik bada? Hortxe UEU-ko datozen 49. udako ikastaroen baitan, Usurbilen iragarri duten Jakin Jardunaldien izenburu eta gaia. Uztailaren 15ean eta 16an ospatuko dira jardunaldiok Udarregi Ikastolan. Matrikulazio epea zabalik dute.

■ Ikastaro egunak: uztailak 15 eta 16.

■ Tokia: Udarregi Ikastola.

■ Ordu kopurua: 11.

■ Xehetasunak: “Mundua kri-



Jakin Jardunaldian izena emateko epea uztailaren 9an amaituko da.

sian dugu. Larrialdi klimatiko, ekologiko eta sozial bete-betean bizi gara. Kolapsatzear, diote

aditu askok eta askok, nahiz eta horrela denik ez dugun sentitu. Zer datorkigu? Aurrerabideak

aurrerabide izaten jarraitzen du? Eta zer bide dago ez bada desazkundea? Zer alternatiba ditugu abian Euskal Herrian?”.

■ Matrikulazioa: maiatzak 17-uztailak 9.

■ Matrikula prezioa: 10 euro.

■ Oharra: “Covid-19 izurrite egoeran ikastetxeek jarraitu beharreko prebentzio-, segurtasun- eta higiene-neurri berriak jarraituko dira gure egoitza eta jardueretan”.

■ Antolatzaileak: UEU, Usurbilgo Udala, Jakin Fundazioa.

Informazio gehiago:

ueu.eus

Egitaraua

Uztailak 15, osteguna

■ 09:00-09:30 Harrera eta dokumentazio banaketa.

■ 09:30-10:00 Ongietorria eta sarrera.

■ 10:00-10:40 Krisi sozio-ekologikoa, ekonomiatik haratago doan gaitz sistemikoa: Unai Pascual (ekonomilaria eta BC3ko ikertzaile eta Nazio Batuen Erakundearen Bioaniztasunerako eta Ekosistema Zerbitzueterako Plataformako kidea).

■ 10:40-11:10 Ur berdearen garrantzia krisi klimatikoaren aurrean: Ane Zabaleta (hidrologoa eta UPV/EHUko irakaslea).

■ 11:10-11:30 Atsedena.

■ 11:30-12:00 Klima aldaketa eta kostaldeko arriskuak: Elisa Sainz de Murieta (geologoa eta BC3ko ikertzailea).

■ 12:00-12:30 Euskal Herriko ingurune naturalaren etorkizuna: Arturo Eloseggi (UPV/EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultatean irakasle katedraduna, Landareen Biologia eta Ekologia Sailean).

■ 12:30-13:00 Mahai-ingurua eta galde-erantzunak.

■ 13:00-15:00 Bazkaltzeko tarte.

■ 15:00-15:35 Zer da bizitza erdigunean jartzea? Alternatiba antipatriarkalak arakutzen ekofeminismoetatik: Mirene Begiristain (ekonomilaria, agroekologian eta elikadura

burujabetzan aditua eta UPV/EHUko irakaslea).

■ 15:35-16:10 Larrialdi klimatiko, metamorfosi ekologiko eta justizia sozialaren haritik borrokatzen: Sabine Endara eta Xabier Harluxet (Bizi! mugimenduko kideak).

■ 16:10-16:40 Uraren kudeaketa Nafarroan: gatazkak eta proposamenak: Belen Ausejo (Urbizi taldeko kidea).

■ 16:40-17:00 Mahai-ingurua eta galde-erantzunak.

Uztailak 16, ostirala

■ 09:30-10:05 Klima aldaketa, glaziarren ikuspuntutik: Ibai Rico (glaziologoa eta UPV/EHUko irakaslea) eta Eñaut

Izaguirre (glaziologoa, UPV/EHUko irakaslea eta BC3ko ikertzailea).

■ 10:05-10:25 Abeltzaintza ustiaketa industrialaren ajeak. Nafarroako kasua: Lorea Flores (biologoa eta Hego Euskal Herriko Greenpeace-ko koordinatzailea).

■ 10:25-10:45 Esperientziak: Goïener; Usurbil, atez ate.

■ 10:45-11:05 Atsedena.

■ 11:05-11:45 Esperientziak: Jauregia Etxaldea, Lurgaita Fundazioa.

■ 11:45-12:30 Mahai-ingurua eta galde-erantzunak.

■ 12:30-13:00 Bukaera ekitaldia. Eli eta Manex Pagolaren bertso musikatuena saioa.



Zaintza ereduari buruzko parte-hartze prozesua, martxan da. Talde eragilea astelehenean batu zen eta irailean ekingo diote berriro lanari. Argazkia: Udala.



“Pandemia garaiko kulturentzako egoera eta erronkak” aztertutako Udako Ikastaroetan. Luken Arkarazo zinegotziak Usurbilgo Kultur Birari buruzko xehetasunak aletu zituen bertan. Argazkia: Mintzola.

Ucinen auzi errekurtsuaren aurrean, presio sozialari eustea ezinbestekoa Anerrekarentzat

Ucinek Usurbilgo Udalaren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu duela berri eman zuen udal gobernu taldeak maiatza amaierako udalbatzarrean. Arrazoiak zeintzuk ziren ez zituztela ezagutzen zioten, baina otsailaren 9ko Tokiko Gobernu Batzarrek hartutako erabakiaren harira zeto-rrera. Osinaldeko lantegiaren jarduera baimena eguneratu beharra zegoen, horretarako Eusko Jaurlaritzak zehazturiko baldintzak zorroztea erabaki zuen Udalak.

Aipatu moduan, Ucinen erantzuna auzitegietara jotzea izan da. Erabaki honen ildotik, Udalak ediktu bat kaleratu zuen prozesu honetan demandatu gisa agertzeko aukera eskainiz. Prozesu judizial horretan elkarlanean aritzeko gonbita jaso zuen baita Anerreka ingurumen elkarteak. Gai honen harira, informazio bilera deitu zuten ekainaren 14an Sutegi atarian.

Hasiera batean bai, prozesu honetan eskuhartzekoa zen



Teilatutik kea filtratu gabe ez isurtzeko Ucini egin zaizkion deiei jaramonik ez diela egin salatu du Anerrekak. "17 urte daramagu kontu honekin".

ANERREKA INGURUMEN ELKARTEA

"Udala bakarrik ez, Ucinek herria eraman du epaiketara. Oso larria da"

Anerreka. Udalaren abokatuarekin biltzea eskatzekoa zen elkarteak, baina prozesu honetan ez parte hartzea erabaki du. "Bide judizialean edozer gerta daiteke" ohartarazi zuten eta kostu ekonomikoei aurre egiteko ezintasuna agertu zuen

Anerrekak, halako prozesuetan murgiltzeko sarritan izaten den oztopo nagusia, justizia denon eskuragarri ez dagoela argi uzten duen adibidea honakoa.

Horrez gainera, Anerrekatik diotenez, "hori ez da gure esparrua" eta beraz, "epaiketara ez aurkeztea erabaki dugu".

"Ucin herriaren kontra joan da"

Halere, begi bistakoa denez, "arazo nagusiak hor dirau". Urte luzez gertatu den moduan, azken asteotan ere sarritan ikusi da Ucinetik isurtzen

zen kea zutabea. Urte luzez, teilatutik kea "filtratu gabe" ez isurtzeko egin zaizkion ohartarazpenei "jaramonik ez" diela egin gogorarazten zuten Anerrekatik Sutegiko bileran. "17 urte daramagu kontu honekin" zioten.

Udalaren aurka soilik ez, Ucin "herriaren kontra joan da" auzi errekurtsu honekin. "Udala bakarrik ez, herria eraman du epaiketara. Oso larria da", zioten Anerrekatik iragan asteko bileran. Jauzi kualitate handia da honakoa ingurumen elkartekoen esanetan. Bidegabetzat jotzen dute egoera. "Ucin auzitegira Udalak eraman beharrean, Ucinek eraman du Udala". Ucinek Udala auzitara eramatea, "ordago bat da. Ucinek irabazten badu ateak zabaltzen zaizkio".

Abiaraziko duen epaitegiko prozesu honi begira, "epaiketara ez goaz baina hemen gaudela". Horregatik, udazkenetik aurrera, presio sozialari eustea oso garrantzitsutzat jotzen dute. "Bide hori zuekin jorratu nahi dugu", adierazi zuen Anerrekak Sutegi atariko bileran.

Eukaliptoen landaketak ingurumenean eragiten du, eta ez onerako

Ingurumen gai ezberdinei buruz Anerreka ElkarTEAK hileroko hitzorduren bat antolatzeko abian duen dinamika- ren baitan, eukaliptoak izan zituen hizpide ekainaren 17an Sutegin antolatu zuen hitzaldian. EHUko Zientzia eta Teknologia fakultatean irakasle katedradun Arturo Elosegi gonbidatu zuten hitzordura. Eusko Jaurlaritzaren enkar- guz eukaliptoak landatzeak ingurumenean duen eragina aztertzeko talde lan batean parte hartu du. Eta ondorioa argia da; bai, eukaliptoak in-

gurumenean eragina du. Eta ez onerako gainera.

Kezka hazten doa, batez ere azken urteotan pinudiak ebakitzten hasi direnean, "banda marroi" izenarekin ezagunagoa zai- gun gaixotasuna hedatu ostean. Eukaliptoak aldiz, lekua hartzen ari da inguruotan. Eta abiada bi- zian gainera. Elosegik zioenez, Gipuzkoan 2 urteetan, bikoiztu egin dira eukalipto hektareak; 632tik 1.214ra. EAE-ko lur ere- muaren %3,2a estaltzen du jada. "Oso hazkunde azkarra" izaten du. Suzalea da gainera, kasuotan, "errazago ernatzen

ditu haziak". Gai honen bueltan kezka bada, eta horren adibidea, irakasle katedradunaren esanetan, azken hamarkada hauetan gai honi buruz adituen artiku- luen argitalpenak nola ugaritu diren.

Baso politika berrien beharra

Hitzaldian zehar landaketa hauen hazkuntzak ekar di- tzaketan kalteez ohartarazi zuten. "Lurzorua txirotu de- zake", adierazi zuen Elosegik. Anfibioen garapenean eragin dezake; deformazio arriskua handitu, erantzun immune es-

kasagoa izan, hazkuntza moteldu. Erosioa handitu eta errekek kolore uherra izatea ahalbidetu. "Beroketa globa- larentzat ez da irtenbidea", zioen Anerrekak Sutegira gonbidaturiko hizlariak. Gai- neratzen zuenek, "bertako ba- soa baino nabarmen okerra- goa". Egoera honen aurrean, beharrezkotzat jotzen zuten hitzaldian, eukalipto landa- ketak mugatzea. Baina horrekin batera sakoneko aldaketa bai- ta; "bestelako baso politikak bultzatzea. Lurrak erosi eta bertako basora bideratzea".

GERTU

**USURBILGO HERRI
MERKATARITZA,
HERRITARRAREKIKO
GERTUEN,
ZERBITZURIK ONENA
EMATEKO**

hurbilag

USURBILGO MERKATARI ETA
OSTALARIEN ELKARTEA

Euskadi, arazolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO

DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO



Usurbilgo Udala

Zumartekoek plazan amaitu zuten ikasturtea



Zumartek ikasturte amaierako kontzertuak eskaini zituen aurreko astean. Taldeen txanda izan zen ekainaren 18an eta saio horiekin amaitu zen Musika Eskolaren ikasturtea.

Kultur Bira, iruditan



Eguraldia Artixen Gaua baldintzatu zuen. Aginagako Eliza Zaharraren atarian egitekoa zutena Aginaga bertako frontoian ospatu zuten, Txokoaldeko ekitaldia Santueneko frontoian. Bizkarreko skate parkekoa, Askatasuna plazan. Igandean, Kultur Biraren baitan, dokumental bat proiektatu zuten Sutegin. Bertako ganadu suharren historia kontatzen duen ikusentzunezkoa da "Suharra".

Etorkizuneko auzoa eraikitzen hasteko lehen urratsak eman dituzte Santuenean

Nola irudikatzen duzue 7-10 urte barru Santuenean? Nolako auzo batean bizi nahiko zenukete? Zer erronka ditu auzoak? galdera hauei eta beste batzuei erantzuteari ekin zioten ekainaren 16an Santuenean, Udalak, bizilagunek nahiz auzoko eragileek elkarlanean. Etorkizuneko Santueneko eraberritze plana diseinatzen hasiak dira.

Momentuz aurrelanketa fasean dira. Auzo planaren nondik norakoak, eta Usurbilgo Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO) aurkeztu zituen Usurbilgo Udalak iragan astean, prozesu hau dinamizatzeko duen Hiritik At! kooperatibako ordezkariarekin batera. Irailean abiaraziko duten parte hartze prozesuaren aurretik, hurrengo hitzordua, ekainaren 30ean 18:00etan Santueneko frontoian. Auzoko irisgarritasun proiektua aurkeztuko du Usurbilgo Udalak.



Auzo planaren nondik norakoak eta Usurbilgo Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO) aurkeztu zituen Udalak iragan astean Santuenean.

AGURTZANE SOLABERRIETA

“Gure helburua auzo bizigarriak lortzea da, Kaxkoa eta auzoen artean dagoen arrakala gutxitzea”

Helburua finkatua dute; legegaldiko planean jasoa duten moduan, Santuenea bizigarri-

go bat eraikitzea. “Gure helburua auzo bizigarriak lortzea da, Kaxkoa eta auzoen artean dagoen arrakala gutxitzea, nortasun, eta errealtate propioak dituztelako eta horietan arreta jartzen ari gara, auzoetako bizi kalitatea eta herritarren ongizatea hobetzeko asmoz”, zioen Santueneko aurkezpen ekitaldian, Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrieta Mesak.

Pandemia aurretik auzoko eragileekin bilduta, hirigintza lan zehatz batzuetatik harago Santueneak dituen behar anitzei osotasun batean erantzungo zien egitasmo bat bideratzeko proposamena mahai gainean jarri zutela oroitu zuen alkateak. “Auzo plan bat osatzeko erronka eta asmoa plazaratu genuen”.

Orain Santuenean abiatzera doazen prozesuaren bidez, “ez dugu dudarik, balioko duela auzoko sare komunitatea indartzeko, belaunaldi arteko harremanak sortzeko edo dau-denak indartzeko”. Ezinbestekotzat jotzen du Udalak abiatu berri duten egitasmoa, “auzoaren kohesio sozialean, eta batez ere bizikidetzan eragiteko”. Udalarentzat gainera “hurrengo urteetarako bide-orri moduko bat” izango da. Udaletik argi dute, santuenearrei zuzenduta ziotenez, “zuen borondate, konpromiso eta parte hartzearekin lortuko dugu”.

Santuenea herri gunera eta herri gunea Santueneara hurbiltzeko erronka

440 bizilagun, udalerriko batatz besteko errenta baxue-nak, langabetu kopuru altue-na, biztanleria murrizten eta zahartzen... Zaurgarritasun egoeran den auzoa eta hiri-gintza ikuspegitik gabeziak dituenak; irisgarritasun eza, argiztapen edota saneamen-duan zer hobetua duena. Hobekuntza tarte nabarmena izan eta zer irabazi asko du Santueneak.

Komunikazioa

eta mugikortasuna hobetzea Udalak urtero 12-13 milioi euroko aurrekontua izaten

duela kontuan izanda, 9 milioi euroko inbertsioa bideratu asmo dute Santuenean. Horretarako, auzo plana diseinatu nahi dute santuenearrekin, geroa Udala lantzen ari den Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean txertatzeko.

Santuenea barruko hobekuntzez gain, ondoan dituen auzo nahiz herrietara hurbiltzea da helburua, eta ingurua Santuenera gerturatzea; “loturak hobetu eta hurbiltzea”.

Tren geltoki berria, Ingemarrek ere eremua...

Eta horretan lagundu dezake,

aurreikusia dagoen tren geltoki berriak. Errekaldekoaren antzera, trenbidearen gainean eraiki asmo dago eta trenbidea gainetik zeharkatzeko pasabidea izango du, albo banatan igogailua duela.

■ Oinezko nahiz txirrindularientzat, gerturatze hau gauzatzeko Santuenea, auzokide dituen Aginaga, Zubieta edota Kaxkoarekin bide seguruekin lotzeko aukeraz jardun zuten.

■ Geltoki berriarekin batera, estrategikotzat jotzen du Udalak Ingemar lantegiaren eremua. Zonalde honen erabilera hausnartzeko beharra plazaratu

zuen Udalak. Erabilera anitzeko eremuan bilakatzeko asmo bat izan liteke, “espazio biziagoa izateko”.

■ Errioren bueltan ere alaketak egon daitezke; batetik, Zumartegi industriagunean erriberak paseorako berreskuratze dagoen balizko aukeraz mintzatu ziren.

■ Orbeldiko presan, Gipuzkoako piraguismo federazioak ur biziaren kanala sortzeko proiektu baten lanketan dela berri eman zuen Udalak.

Bada eraldatu eta biziberritzeko mugimendua beraz, Santuenea bueltan.

Belmonte, Kalezar auzoa biziberritzeko lanean

Auzoa elkartzea, “auzo sentimendua berpiztea, adin tarte ezberdinetako pertsonak bilduta”. Belmonte auzo elkarteak lanean dihardu, indarberriturik eta une erabakigarrian; Kalezar aldaketa prozesu betean dute. “Aldaketa handiak datozela kontziente gara. Horiek nola kudeatu ikusteko tresna bat izan daiteke auzo elkarteak”.

Etorkizunean Emakumeen Etxearekin batera, Pelaiocenean kokatuko den kalezartarrentzako udal ekipamenduaren proiektuaren harira indartu da, baina “lehendik “bazen auzo sentimendu hori berpizteko nahia. Atzetik datozen kezka eta erronka piloa dago” Kalezar luze zabalean.

Elkartearen baitan zenbait lan talde osatu dituzte eta batzordeotako arduradunak gero zuzendaritza taldean biltzen dira. Bat, urteko ekin-tzez arduratzen ari da. Kultur Birara batu diren egunotako San Joanak antolatu dituzte. Ekainaren 24az gain, badute beste data esanguratsu bat aurtengoan; irailaren 21a. Egun horretan, Villa Belmonte de Usurbil eratu zela 650 urte beteko dira. “Ikusten genuen egun horren harira polita izan zitekeela zerbait egiteko”. Esan



“Aldaketa handiak datozela kontziente gara. Horiek nola kudeatu ikusteko tresna bat izan daiteke auzo elkarteak”.

BELMONTE AUZO ELKARTEA

**“Gure Kalezar handitzen
doa, baina sendoak izaten
jarraitu nahi dugu,
batasun hori
mantenduz”**

eta egin. Kalezarko historia azalduko duen auzo antzerki ibiltari bat eskaintzekoak dira urriaren 23an.

Hazten, baina sendo

Beste batzorde bati, Pelaiocenea izena jarri diote. Gogoan izan, Kalezarko plazan kokatu eta kanpotik birgaitua dagoen eraikinean kokatuko dira etor-

kizunean Emakumeen Etxea eta kalezartarrentzako udal ekipamendua. Iaz bi egitas-mook definitzeko parte hartze prozesu bana abiarazi zuten. Ekarpene asko egin zituzte-la berri eman dio Belmonte elkarteak NOAUA!ri. Hori jaso eta udazkenetik aurrera heldu asmo diote gaiari, Pelaiocenea barrualdeko lanak amaitzen direnerako prest egon behar-koko baitu “nola egingo den gure proiektua, udalarekin zuzenean koordinatu beharko gara...”.

Beste batzordeotako bat, hirigintza gaiez arduratzen ari da. Kalezar ingurutik osterat-xoa egiten baduzue, begi bis-

takoa den moduan, eraldatze betean da ingurua. Aipaturiko Pelaioceneako birgaitze lanez gain, adinekoen auzune berria eraikitzen ari dira garai bateko mojen konbentuaren lur eremuan, handik hurbil etxebizitza sorta altxatzen ari dira Ugartondon... “Gure Kalezar handitzen doa, baina sendoak izaten jarraitu nahi dugu, batasun hori mantentzea”, aipatu digute Belmonteko ordezkari-ek. Aldaketa guztiok “bertigo pixka bat” ematen dietela adierazita, “ia aldaketa guztioi nola aurre egiten diegun”. Auzoa biziberritzearen alde dira noski, beste kontu bat da “ze neurritan eta nola”.

Elkartera batzeko deia egin diete auzotarrei

Datozen aldaketei begira, auzoari lotutako erabaki eta egitasmoetan murgildu nahiz hartuemanetan jartzera animatzen dute, “izan Kalezarren jaio edo Kalezarrera bizitzera etorritakoa”, auzo komunitatean esku hartzera.

Bazkidetza kanpaina martxan dute. “Bazkidetzak ez du betebeharrak bat suposatzen”, argitu dute auzo elkartetik, “au-

zoaren inguruan informatu eta zure iritzia entzunarazteko” aukera eskaintzen du. “Auzo elkarteak izango da gero udal-txean ordezkari lanak egingo dituen”.

Arreta bereziki Kaxkotik aparteago, landa eremuan bizi den auzotarrengan jarria dute. “Erronketako bat da, nola hel-du goiko nahiz beheko auzo-tarrengana, parte har dezaten,

auzo elkartearekin bat egin dezaten”.

Bazkidetza tramitatzeke bi bide daude; batetik, Kalezarko soziedadearen ondoan dagoen postontzian datuak utzita edo belmonteauzoelkarte@gmail.com helbidera email bat idatzita. Bide hau baliatu ohi dute hala nahi dutenei informazioa helarazteko. Helbide bera baliatu daiteke gainera, ekarpe-

nak edo proposamenak egin, nahiz argibideak jasotzeko ere.

Oroitzen dute nola auzo elkarte berriz martxan jartzera zihoazela bazkidetza kanpaina abiarazi zutenean, lehen kolpean, astebeteko tartean, postontzietan deialdi masiboa eginda eta postua plazan jarrita, 50 lagunekin bat egin zuten bilgunearekin. Sarea hazi eta ehuntzen segi nahi dute.

Kalezarreko jaiek saretu zuten auzo elkartea

Belmonte auzo elkartearen abiapuntua, sarritan parranda giroan murgiltzen lagundu nahiz egunerokotasunak dakarren zurrumbilotik urruntzen gaituzten San Juanak izan ziren. “Jai batzuk egin zuten sare bat”, 2000. hamarkada hasieran, guraso talde bat festen barruko Haurren Eguna antolatzen hasi zenean, Jai Batzordeak laguntzarako deia egin ostean.

Aldaketak gaur arte eten ez den soka ekarri du. Haurren Eguna haietan parte hartu zuten gaztetxoek “lagundu ziguten elkar ezagutzen” 90. hamarkada amaieran Kalezarrera bizitzera joan nahiz bertan bizi zirenen artean. Bizitza Kalezarren eginez hazi ziren “haur haiek dira egun Jai Batzordean daudenak”. Bizimodu haren garrantzia nabarmentzen dute gaztetu diren ume haiek. “Festek eta bertan bizitzeak elkartu digute. Oraindik lotura hori hor dago”. Eta nabari dute auzolanean dabilzanean ere. “Urteak daramatzagu batera lan egiten eta konfiantza dago”.

Urteetan eutsi zieten dinamika hari baina gerora auzo giroa apaltzen joan zen. Horrez gain,



San Juan jaien ordean, hainbat kultur ekitaldi antolatu dira asteburu honetarako. Larunbatean Ameba taldea arituko da.

KOMUNITATE IZAERA
Parte-hartze prozesuko dinamizatzaileei arreta deitu zien ikustea
“bazela oinarri bat, auzo komunitate bat sortua zegoela alde aurretik”.
Horregatik diote Belmontetik, “Pelaioenea berriz martxan jartzeko aitzakia izan da”

bazen “elkartu eta espazio bat izateko, materiala gordetzeko auzo ekipamendu baten beharra”. Haranaren izan zuten lokala hasieran.

Testuinguru horretan urrats berria ematen du auzoak eta 2000. hamarkada amaieran auzo elkartea sortzen dute. Garai hartakoa da esaterako, “Kalezarren ume dezente ibil-

tzen zirenez” auzoa pibotatzeko ekarpena.

Etenaldi berri bat etorri zen gero eta jakin gabe, aurrekari gabeko pandemia bat ate joka zutela, auzoak hainbat behar zituela ikusita berriz ekin zioten lanari. Covid-19ak geldialdi berria eragin zuen, iazko udazkenean Pelaioenea birgaitzeko testuinguruan parte hartze prozesua abiatu arte. “Zer, nola irudikatzen hasi ginen. Oso interesgarria izan da adin ezberdinetako auzokideak era natural batean elkartzea”.

Prozesuko dinamizatzaileei arreta deitu zien ikustea “bazela oinarri bat, auzo komunitate bat sortua zegoela alde aurretik”. Horregatik diote, Belmontetik “Pelaioenea berriz martxan jartzeko aitzakia izan da”.

Kalezar

Kultur Biran

Ekainak 24, osteguna

■ 11:00 Meza Nagusia.

■ 12:00 Toka.

■ 19:00 Bertso musikatuena saioa. Parte hartzaileak:

-Bertsotan: Nerea Ibarzabal, Maialen Lujanbio, Unai Iturriaga, Amaia Agirre.

-Musikariak: Gari Otamendi eta Ixak Arruti.

Ekainak 25, ostirala

■ 20:00 Ameba kontzertuan.

Ekainak 26, larunbata

■ 12:00 Harri jasotze eta aizkolarien erakustaldia.

■ 18:00 Bakarriketak: Portillo eta Ñako.

■ 20:00 Kontzertua: Maddi eta Ane.

Ekainak 27, igandea

10:30 Kalexarko ginkana.

16:00 Marrazki tailerra: haur, gazte eta helduentzat.

17:30 Ipuin kontaketa saioa Ixabel Agirresaroberekin.

Informazio gehiago:

usurbilkultura.eus

Antolazailea:

Kalezarko Jai Batzordea.



Diplomen banaketarekin amaitu zuten 2020/2021 ikasturtea esperientzia eskolako kideek. Agurtzane Solaberrieta Mesa alkatearen eskutik jaso zuten ziurtagiria Artzabalen.

Sarritua, euskara sustatzeagatik

Maite Agirresarobe usurbildarra saritu dute Gasteizko dendaren arteko lehiaketa batean. Saria dendako erakusleihoan euskara sustatzeagatik lortu du, apainketaz gain, euskaren sustapena kontuan hartzen baitute.



Bigarren saria du Artis Kreativa dendako lantaldeak.

Euskara eta aisialdiko udal diru laguntzak eskatzeko garaia

Ekainaren 28tik uztailaren 9ra bideratu ahalko dira eskabideak. Informazio gehiago, ekainaren 18ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean jaso daiteke.

2020-21 ikasturtean aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroa egin dutenentzat

■ Onuradunak:

2020-2021 ikasturtean aisialdiko begirale edo aisialdiko zuzendari ikastaroak egin dituzten 16 urtez gorako usurbildarrak.

■ Baldintzak:

-Usurbilen erroldatua egotea.
-Ikastaroa euskaraz izatea eta Eusko Jaurlaritzak homologatua izatea.
-Ikastaroaren alderdi teorikoa gaintzea eta araututako gehienezko epearen barruan titulua lortzea.

■ Laguntza:

-Begirale ikastaroa: matrikularen %50a (gehienez ere 250 euro).
-Aisialdiko zuzendari ikastaroa: matrikularen %50a (gehienez ere 170 euro).

2021-22 ikasturtean euskara ikasten aritu dutenentzat

■ Onuradunak:

Usurbilen erroldatuta dauden 16 urtez gorako euskara ikasleak.

■ Baldintzak:

-Usurbilen erroldatua egotea.
-Gutxienez, ikastaro osoan zehar, %80ko asistentzia izatea. (autoikaskuntzaren kasuan aprobetxamendua ziurtatzea).
-Gutxienezko aprobetxamendua gaintzea: Euskaltegiak



Usurbilen erroldatuta dauden 16 urtez gorako euskara ikasleek dirulaguntza eskatu eta jasotzeko aukera dute.

DIRU LAGUNTZAK

**“Informazio gehiago
ekainaren 18ko
Gipuzkoako Aldizkari
Ofizialean jaso daiteke”**

egindako ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharrekoa.

■ Laguntza:

2020ko irailetik 2021eko abuztuaren 31 bitartean egindako ikastaroak diruz lagunduko dira. Herritar guztiek matrikula kostuaren %100 jasoko dute (600 euroko muga).

Behar ekonomiko bereziak dituzten euskara ikasleentzako dirulaguntzak

■ Onuradunak:

Usurbilen erroldatuta egonik, behar ekonomiko berezia duten euskara ikasleak. Ikastaro hauek 2021eko uztailetik 2022ko ekainaren 30a bitartean egindakoak izango dira.

■ Baldintzak:

Dirulaguntza kopuruak izen-

datzeko kontuan izango diren irizpideak euskara ikasleentzako dirulaguntza oinarri orokorretan jasotzen diren berak izango dira.

Dirulaguntza hauetarako eskaerak euskaltegi matrikula egiten denean aurkeztu behar dira.

■ Laguntza:

Behar ekonomiko berezia duten herritarrei Euskaltegi matrikula kostua aurreratuko zaie.

C1 prestatzeko taldea euskaltegian

Etumeta AEK euskaltegiak taldea osatu du uztailaren zehar, C1 eskuratzeko ikastaroa eskaintzeko. 80 orduko iraupena izango du. Uztailaren 1ean jarriko dute martxan. Egutegia goizez eta lau orduz izango dira klaseak; astelehenetik ostiralera, 9:00-13:00 artean.

Izen emateko aukera bada oraindik: Kale Nagusia, 43 607 609 379

usurbil@ae.eus

Euskotren indartuta udako ordutegian

Aste hasieratik udako ordutegia martxan du Euskotrenek. Zerbizua indartu du larunbat, igande eta jai egunetan; ordu erdiro eskainiko dute 13:50-20:50 artean.

Informazio gehiagorako:

euskotren.eus

944 333 333

Aldaketak Lurraldebusen ordutegietan

Covid-19ari aurre egiteko neurriak arintzearen eraginez, asteburu gauetako zerbizua luzatzea erabaki du Lurraldebusek.

■ Ostiraletan azken zerbiztuak: 23:40 aldera Donostiarantz; 23:45ean, 00:30ean eta 01:30ean Oriorantz.

■ Larunbatetan orduotan Donostiarantz: 23:40, 00:40, 1:40, 2:40, 3:40. Oriorantz: 00:00, 00:30, 01:30, 02:30, 03:30.

Informazio gehiagorako:

900 300 340

lurraldebus.eus

Olatz Lasagabaster eta Patxi Uranga, aske

Ezarri zieten zigorra osorik beteta, ekainaren 19an kendu zizkieten pultsera telematikoak Olatz Lasagabaster eta Patxi Uranga herritarrei. Erabat aske dira, Xua eta Maddirekin etxean.

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

www.noaua.eus

USURBILGO ATARIA

Otar-Goxo
Elkagaiak

Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza salgai, kale Nagusia 39, udaletxe aurrean. 58m (bi logela) eta garaje itxia prezioan barne. 649850515.

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berriua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Alokairuan

Usurbilgo gizezko bat naiz eta alokairuan pisu bat hartuko nuke Usurbil edo inguruan. 659185107

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

Garage bat alokairuan, 22m² Santuenean. 671547567.

Atxegalden garaje bat nahiko genuke alokairuan edo erosteko. 628498326

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko garbiketa egiteko; Familia zamarik gabekoa. Haurren zaintzan esperientzia izatea beharrezkoa. Nahiago da euskara ondo menperatzen dakien pertsona izatea. 638738505

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera

Txiribogan asteburueterako lan-gileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Pertsona helduak, garbiketak,

peoi lanak edo pintore laguntzaile moduan aritzeko prest, gizonetako bat naiz. 622747833

Pertsona helduak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest, neska bat naiz. 622747833

Arratsetarako lan bila nabil. Euskalduna naiz, usurbildarra. Haurren zaintzan edo etxeko lanetan aritzeko prest. 61627 3785.

Neska orduka eskaintzen da etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko. Titulu soziosanitarioarekin. 612 433 485.

Neska orduka eskaintzen da etxeko lanetarako edo haurrak zaintzeko. 631 89 49 90.

Adinekoak zaintzeko lan bila nabil. Geriatria ikastaroa egina dut. Orduka nahiz egun osoz lan egiteko prest. 604 349 970.

Nikaraguako neska arduratsu eta ondradua, garbiketa lan eta adinekoen zaintza lanetan aritzeko erabateko prestasuna. Esperientziaduna. 602 481 854 / anisie-

za@gmail.com

Pertsona helduak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest dagoen emakume bat naiz. Ordu-tegi aldetik disponibilitate osoa. 608935674 (Anjela)

Garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko neska bat naiz. Ordukako lana edo interna moduan 603315126.

Orduka edo interna moduan lan egingo nuke pertsona helduak zaintzen, etxeko lanak edo garbiketa lanak egiten 620081572

Interna moduan pertsona helduak zaintzeko prest. 14 urteko esperientzia, erreferentzia onak. Profesionaltasun ziurtagiria. 667907196

BESTELAKOAK

Lepoko marroia duen txakurkume eme marroi bat aurkitu dugu Olarrondo kalean. 685473499

Herritar batek perikito bat topatu eta udaltzainetan utzi du.

Telefonoz dei dezake (943 36 11 12) edo udaltzainetara joan, zuzenean, perikitoaren bila.

10 urteko mutil bati ortodontzia-aparatua galdu zaió herrian. Norbaitek aurkituko balu deitu dezala hona: 600 768 570.

Etxe bateko altzariak saltzen ditut. 600 360 809.

Josteko remalladora Donna 800 salgai. Berria dago, bizpahiru aldiz erabilia soilik. Prezioa: 270 euro. 652 702 237 (Zorione).

Filologia ikasketak ditut, ingeleseko klaseak ematen ditut bakarka edo taldean. Maila guztiak. 660845780 / bouchrahajar@outlook.com

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Atalluko Garbigunean, doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatean: 9:00-13:00.

**Zorionak Amaiur!**

Etxeko guztien partez!!

6 urte jada!

Handitzen, handitzen...

Asko maite zaitugu.

Zoragarria zara.

Goardiako farmaziak

Osteguna 24 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Ostirala 25 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Larunbata 26 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Igandea 27 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Astelehena 28 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Asteartea 29 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Asteazkena 30 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Osteguna 01 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Ostirala 02 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Larunbata 03 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Igandea 04 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ETXEBARRIA AZUETA, AITZIBER
Andre Kalea, 48 "Cuevas"
943 55 17 93

Zuen publizitatea hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.eus

Usurbil Autoak
MEKANIKA-KARROZERIA



SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!

ZUMARTEGI INDUSTRIALDEA

943 36 10 79

Agenda ekaina

25 ostirala

- **Kalezarko San Juanak Kultur Biran.** 20:00etan Amebaren kontzertua. Ikus egitaraua 19. orrialdean.
- **Presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea.** 20:00etan Mikel Laboa plazan.

26 larunbata

- **Txokoaldeko auzo-ekipamenduaren inagurazioa.** 11:30ean Txokoaldeko Akerran.
- **Kalezarko San Juanak Kultur Biran.** 12:00 Herri kirolak. 18:00 Bakarrizketak, Portillo eta Ñako. 20:00 Kontzertua: Maddi eta Ane. Ikus egitaraua 19. orrialdean.

27 igandea

- **Kalezarko San Juanak Kultur Biran.** 10:30 Kalexarko ginkana. 16:00 Marrazki tailerra: haur, gazte eta helduentzat. 17:30 Ipuin kontaketa saioa Ixabel Agirresaroberekin. Ikus egitaraua 19. orrialdean.

Buruntzaldeko topaketa feministak begibistan dira

Uztailaren 9tik 11ra Buruntzaldeko neska* gazteek Usurbilen antolatutako udaleku feministak aurkeztu dituzte asteburuko Gazte Eztanda ekimenaren baitan. Parte hartzeko gonbita luzatu dute. Ekainaren 27ra arte eman daiteke izena antolatzaileen sare sozialen bidez.

“Trans egoerei kontatu ez dizuetena” hizpide izango duen hitzaldia, prostituzioaren inguruko oka jolasa, Buruntzaldeko neska* gazte taldeen aurkezpene, ligoteo sanoari buruzko tailerra, edota “feminismoak nola osatzen gaituen” ahotan hartuko duena, kontzertuak, gaubelak... eta gehiago iragarri dituzte uztailako bigarren astebururako Usurbilen.



Ekainaren 27ra arte eman daiteke izena antolatzaileen sare sozialen bidez.

tuen” ahotan hartuko duena, kontzertuak, gaubelak... eta gehiago iragarri dituzte uztailako bigarren astebururako Usurbilen.

Ostiral honetan, presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea

Ekainaren 25ean ostirala, euskal presoen eskubideen aldeko azken ostiraleko elkarretaratzea egingo da, 20:00etan Mikel Laboa plazan. Deitzailea: Usurbilgo Sare.

Larunbat honetan, Txokoaldeko udal ekipamenduaren irekiera

Auzotarren bilgunea izango den Akerra eraikina berritzeko lanak amaituta, inauguratzeko unea heldu da. Larunbat honetan (ekainak 26), goizeko 11:30ean hasita. Deitzailea: Usurbilgo Udala.

Datozenak

Industria jardueren inguruko ikerlanaren aurkezpene

Usurbilgo aire kalitatean herriko jarduera nagusiek duten eragina hobeto ezagutzeko asmoz, Kataluniako UPCko unibertsitateko ikerlariak egindako lana aurkeztuko dute datorren asteartean Sutegin.

Ekainak 29 asteartea

- 19:00etan Sutegin.
- Edukiera: 30 lagun.
- Izen ematea: doan ekainaren 27ra arte, usurbilkultura.eus atarian.
- Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

Zorione Mendezen erakusketa

Alkizako Ur Mara museoan ikusgai izango ditu bere sortze lanak “Marrak” izenburupean. Uztailaren 11n 11:00etan izango da irekiera, gero segidan Bego Bastarrika (akordeoia) eta Jose Luis Toledano (ahotsa, txirula baxua, biola...) bikotearen kontzertua. Bertaratzeko aurrez izena eman beharko da urmara.alkiza@gmail.com helbidean. Zorione Mendezen erakusketa uztailaren 11tik 23ra bisi-tatu ahalko da.

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
·eguneko menua ·asteburuko menua
·karta ·oilasko erreak, pizzak..
JASOTZEKO EDO ETXERA ERAMATEN DUGU!
Zubiaurrenea 6, Usurbil. Tel: 943 37 03 44

ERAMATEKO!!!
·EGUNEKO MENUA
·KARTA
ARTZABAL (ESKANEATU QR KODEA IKUSTEKO)
BASERRIA · JATETXEA
www.artzabaljatetxea.com 943 36 91 39

EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

ARATZ

zabaleta anaiak



32 urtez baserritar eta Arrantzaleekin zuzenean lan egiten
·eguneko menua · karta · pintxoak · bokatak · plater konbinatuak

Igara Bidea, 15, Donostia

erreserbak: 943 21 92 04



LARRAÑAGA
PLASTIKOAK E.A.

INDUSTRIARAKO
PIEZA MOLDAKUNTZA

Ugaldea industrialdea, 1. USURBIL
Telf: 943 36 14 46 / 943 37 33 05
Fax: 943 37 70 01
admon@larranagaplasticos.com

Goieko
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTUAK

*Ondo pasa
San Joanetan!*

ANDER
ARANZAZISTROKI

industria garbiketarako
sistema eta produktuak

© 667 680 236

Ondo
pasa
San
Joanak!

Betiko Sagardoa



SAIZAR

Sagardoa • Sidra Natural



SAGARDOTEGIKO ERRESERBAK
943 373 995



BODEGA

Kale-zahar auzoa, 39

20.170 USURBIL



+34 943 36 45 97



sidreria@sidrassaizar.com

zerretako gaitasuna

www.sidrassaizar.com

